



Herri edo eskualde mailako euskarazko hedabideen dirulaguntzak 2022-2024 aldirako Oinarrietan egindako aldaketak eta beste zenbait jarraibide

Atarikoak

2019-2021ean hasitako bideari jarraipena emateko, aurten ere hiru urteetarako dirulaguntza deialdia egin dugu.

Diputatuen Kontseiluak 2022ko apirilaren 5ean egindako saioan onartu zituen Gipuzkoako herri edo eskualde mailako euskarazko hedabideei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia, 2022-2024 aldirako; [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2022ko apirilaren 22an](#).

Aurreko deialdian bezala, dirulaguntza hauen jatorria dago EAEko erakundeen arteko hitzarmen batean, euskara hutsezko hedabideen ekintzabidea ziurtatzeko xedez egingina eta sinatua Gasteizen, 2022ko apirilaren 11n.

Mezu honen bidez 2022-2024 aldirako oinarrietan egindako aldaketen berri eman nahi dizuegu, eta eskaera aurkezterakoan kontuan izan beharreko jarraibide batzuk azaldu.

Dirulaguntzaren oinarrien aldaketen laburpena

Laburbilduz, hauek dira aldaketarik nagusiak:

1. Beharrezko autofinantzaketaren ehunekoa % 30etik % 25era beheratu da.
2. Informazio osagaien sorkuntza eta funtzionamendua balioesterakoan, Interneten soilik argitaratzen diren berrien kopurua handitu egin da.
3. Onuradunen betebeharren artean Hedabideetako Kudeaketa aurreratua izeneko programa burutzea edo, gutxienez, izena ematea egiaztatu behar da.
4. Dirulaguntzei buruzko ebazpena aldatu ahal izango da; aldaketarako arrazoietakoa bat izango da dirulaguntzaren onuradunaren izaera legala aldatzea.

Oinarrien aldaketak, puntuz puntu

Hona hemen 2022-2024rako oinarrietan egin ditugun aldaketa guztiak, aurreko hiru urteen aldean. Kasu bakoitzean, oinarriaren zenbakiaz eta izenburuaz identifikatzen ditugu.

5. Baldintza teknikoak maiztasunaz, formatuaz eta edizio digitalaz.

lehen	orain
d) Google Analytics neurgailua eduki behar dute bisitak eta estatistikak neurtzeko.	d) Edizio elektronikoaren webguneak funtzionamenduaren neurketarako eta azterketarako tresnaren bat eduki beharko du.



6. Baztertzeak

Epigrafe berri bat da hau:

- d) Sexuen arteko tratu berdintasuna bermatzen ez duten argitalpenak, edo sexua dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak.

11. Eskaera eta dokumentazioa

Epigrafe berri bat da hau:

11.5 Edizio digitala:

- c) Eskaerak aurkezteko epearen amaiera aurreko 6 hilabeteetan paperean eta digitalean argitaratutako edukien zerrenda. Dirulaguntza eskaera aurkezteko garaian zehar aplikazioan izango den eredia erabiliko da horretarako.

12. Dokumentazio elkarrerangigarria eta egiaztagarria

Oinarri hau osorik berria da. Bere helburua da eskatzaileek ez aurkeztu behar izatea edozein administrazioaren esku dauden agiriak, baldin eta sare korporatiboen bidez edo datu bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema batzuen bidez kontsulta baditzake Foru Administrazioak.

12.3. azpiatalean zehazten dira deialdi honetan bitartekaritza plataformen bidez egiaztatuko diren agiriak.

13. Zuzenketa eta dokumentazio osagarria

Oinarri berria da hau ere. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazio lortzea ezinezkoa denean edo dokumentazioa zuzendu edo osatu behar denean nola jokatu zehazten du.

15. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa

15.1 epigrafean aldaketa hau egin dugu:

lehen	orain
Dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, hedabideek urteko gastu guztien % 30 gutxienez baliabide propioz finantzatu behar dute. Finantzaketa propioaren zenbateko hori % 25era murriztu daiteke soilik dirulaguntza hauen eskaerak aurkezteko azken egunean urtebeteko bizitza baino laburragoa duten hedabideen kasuan.	Dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, hedabideek urteko gastu guztien % 25 gutxienez baliabide propioz finantzatu behar dute. Finantzaketa propioaren zenbateko hori % 20era murriztu daiteke soilik dirulaguntza hauen eskaerak aurkezteko azken egunean urtebeteko bizitza baino laburragoa duten hedabideen kasuan.



16. Dirulaguntzaren zenbatekoa

16.4 epigrafean aldaketa hauek egin ditugu:

lehen	orain
1.A - Oinarrizko zenbatekoa Urtean sortutako orrialde kopurua Edizio digitalean, astean 10 albiste edo gehiago	1.A - Oinarrizko zenbatekoa Urtean sortutako orrialde kopurua Edizio digitalean, astean gutxienez 25 albiste eta ikus-entzunezko bat
1.B – Zenbateko gehigarria Zenbateko gehigarria eskuratuko dute paperezko hedabideek, baldin eta edizio digitalean astean 29 albiste edo gehiago argitaratzen badute, gehi ikus-entzunezko bat.	1.B – Zenbateko gehigarria Zenbateko gehigarria eskuratuko dute paperezko hedabideek, baldin eta edizio digitalean astean 40 albiste edo gehiago argitaratzen badute, gehi ikus-entzunezko bat.

19. Onuradunaren betebeharrak

Oinarri honen bigarren atala berria da: kudeaketa aurreratuko programan parte hartzeko beharkizuna ezartzen du dirulaguntzaren onuradun guztientzat. Garrantzikoa da beharkizun honi arreta handi bat ematea, bete ezean dirulaguntza auzitan jar baitezake.

23. Dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa

Oinarri hau berria da, osorik. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko aurreikuspena egiten du. Egoera hauek izan daitezke ebazpena aldatzeko arrazoiak:

- Finkatutako epeak luzatzea.
- Emandako dirulaguntza murriztea.
- Jardueran bildutako ekintzak aldatzea.
- Dirulaguntzaren titulartasuna aldatzea.

Ez bakarrik, baina bereziki azken egoera hori izan behar duzue gogoan, hedabideen arteko aliantzak eta bateratze prozesuetan edo, besterik gabe, hedabideen titularraren nortasun juridikoa aldatzeko asmotan ari zaretenok. Mesedez, egiozue irakurketa sakon bat oinarri honi.

Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren dokumentuez

Eskaerarekin batera aurkeztu behar dituzuen dokumentu batzuetan eredu bat erabili behar duzue; dirulaguntzaren aplikazioan eskuratu ahal izango dituzue, eskaeraren zirriborroa osatzen hasten zaretenean. Aurkeztu beharreko gainerako dokumentuetarako ez dago eredu bat erabili beharrik.

Zehazki, bost dokumenturen ereduak izango dituzue eskuragarri:

1. Hedabidearen ezaugarriei buruzko datuak
2. Proiektuaren, programaren edo jardueraren gastu eta diru sarreren aurrekontua.
3. Eskaerak aurkezteko epearen amaiera aurreko 6 hilabeteetan paperean eta digitalean argitaratutako edukien zerrenda.
4. Genero berdintasunaren trataerari buruzko txostena.

Azken hori PDFko formulario bat da, baina beste hirurak kalkulu orriko fitxategiak (Excel) dira, guretzat oso mesedegarria baita zuen datuak formatu horretan jasotzea.



Excel-eko hiru fitxategi horiek babestuta daude, hau da, soilik utziko dizue datuak sartzen behar den gelaxkatan. Mesedez, ez kendu babesa fitxategi horiei, erabili dauden-dauden, soilik datuak idatzita eta, batez ere, ez aktibatu makroak; bestela, dirulaguntzen aplikazioak ez dizue eranstean utziko eskaera egiterakoan.



zalantzarik?

Zalantzarik baduzue, azaldutako aldatetekin edo beste ezerekin, mesedez, jar zaitezte gurekin harremanetan:

Ione Iguaran
jiguaran@gipuzkoa.eus
943 112354